

Erf.: Azokatxoko baimenen esleipena
Tx. zk.: 16/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko Behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Udal azokatxoko kale salmentarako baimenak esleitzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Lehenengoa: 2016ko uztailaren 20an, Udal Osoko bilkureak, azokatxoko kale salemtarako baimenak esleitzeko oinarriak onartzea erabagi eban.

Bigarrena: Deialdiaren iragarkia 2016ko abuztuaren 23ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

b) Oinarriak

Lehenengoa: Onartutako oinarrietan finkatutako prozedurea jarraitu ondoren, baimenen esleipena egiteko proposamena onartu dau kontratazino mahaiak eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen dauan 3/2011 EDLaren 2. Xedapen gehigarrian eta Toki Entitateen ondasunen Erregelamendua onartzen dauan 1372/1986 EDko 78. artikularen arabera, esleipena egitea Osoko Bilkureari jagoko, baimenen iraupena 4 urte baino gehiagokoa dalako.

Bigarrena: Bestalde, baimenak emoteko prozedurea amaituta eta baimenak esleituta, egon leikezan aldaketen ondorioz, esleipen barriak egin beharko balira, esleipen horreek egiteko ahalmena Osoko bilkureari legokio eskumena delegatzen ez badau.

Hori horrela, izapidetzeak arintzeko, eskumena delegatzea komenigarri ikusten da, kontutan eukita eskatzaileek baldintza guztiak betetzen badabez, esleipena izapide hutsezko tramitea dala.

Hori guztia dala eta, honakoa proposatzen da:

LEHENENGOA: Udal azokatxoko kale salmentarako baimenak esleitzea, kontratazino mahaiak egindako proposamenaren arabera

BIGARRENA: Baimen horreen iraupen epean egin beharreko esleipenak onartzeko eskumena Tokiko Gobernu batzarrarengan delegatzea.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2016ko abenduaren 1ean

Karmele Muñoa Arrigain
Behin-behineko Idazkaria